

## Virginia Perez Espainiako Mendi Lasterketetako azpitzapeldun

10. orrialdea

## Armenia eta Uruguayko taldeak Folklore Bizian jaialdian

Igazko emoitza ona ikusita, Areatzako Udalak eta Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldeak, garagarriaren 24an Folklore Bizian jaialdia eroango dabe Areatzara. Armeniako Bardiner taldea, Uruguayko Canelones-Danza Independiente eta Galdakaoko Andra Mari dira aurtengoak. 13. orrialdea



## Mikel Larrañagak irabazi eban Alex Txikonegaz eukan desafioa

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 277

2017ko garagarriaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lemoako San Inazio jaiak hilaren 27tik 31 ra

Garagarriari amaiera emoteko modurik onena, Lemoako jaietatik ibiltea da. Kontzertu interesgarriak, Ibaizabaletik baltsen jeitsiera eta kirola eta kuadrillan egiteko ekintzak egongo dira.

**G**aragarriaren 27an hasiko dira jaiak eta 31n, San Inazio egunean amaituko dira. Lemoan ohiturea danetz, egun bakotxako jarduerak tematika baten inguruan bilduko dira. Holan, hilaren 27a, eguena, kirol eguna izango da; barikua, mozorro eguna; zapatua gastronomia eguna, domekea play-back eguna eta astelehena Euskal Jaia. Kontzertuak jagokienean, Su ta Gar dago iragarrita garagarriaren 29rako. Gau horretan, autobusak egongo dira 02:30etan eta 05:00etan Arratiako herrietara joateko. Domeka gaubean, Tremenda Jauriak eta Bad Sound System-ek joko dabe.

San Inazio eguneko Lemoako Artisautza Azokeak hogei urte beteten ditu aurten. Bertan inguruko artisaurik onenen produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira. 5. orrialdea



### ARRATIA

## Errefujiaduak hartzeako plan bat egiteko batu dira eragileak

Arratiako OEE Plataformea, udalak, Arratiako Udalen Mankomunitatea (AUM), Gurutze Gorria eta Arratiako Caritas batzartu ziran bagilean eta plan bat egiteko konpromisoa hartu eben. Eragile guztiak alkarlanean, harre-ra, laguntza eta gizarteratze programea egingo dabe. Hurrengo batzarrean errefujiaduen premiak beteteko udal bakotzak zer eskeini ahal dauan zehaztuko da.

Garagarriaren 14tik 22ra, Euskal Herriko Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformek antolatuta, Melillarantza abiatuko da "Mugak zabalduz" karabana Europar Batasun eta Espainiako estaduko migrazio politikak salatuteko.

7. orrialdea

### AREATZA

## Oinezkoentzako gune gehiago

Oinezkoen guneak indartuteko proposamen baten inguruan lan egiten dabil Areatzako Udala. Horretarako plazea zarratuko dabe ordutegi jakin baten, kasko historikoan seinalizatutako lekuetan bakarrik aparkatu ahal izango da eta merkatariak zamalanak errez egiteko, zortzi-hamar bat leku egiteko asmoa adierazo dau Asier Garcia alkateak. Seinalizazioa hobetuteko be beste plan bat abiatuko dau Areatzako Udalak.

7. orrialdea

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA • SINTASOLA • PAPERA

Elxalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 62 - 606 654 018

### ARRATIA

## Arratiarrak oporretan biajeak egiteko garagarri gura dabe

Garagarri da oporrek hartzeako arratiarrai gehien gustetan jakien hilea. Hala dino behintzat Almudena Jordan Igorren bulegoa daukan biaje-agentek. Udan, familiagaz joatea gustetan jakie irletara edo hondartza daukan helbide turistiko batetara. Hotel onak gura izaten dabez eta astebeteko oporraldia kontratatzen dabe, gazteak luzetxoagoa. Atzerri doazanak barriz, batez be Thailandia, eta Cuba aukeratzen dabez.

8. eta 9. orrialdeak



## ARRATIA KOLOREETAN

## PARKEAN JOLASEAN ZAZTAPARRAKAZ

Udako oporrakaz batera aisialdi eskeintza zabala izaten dabe umeak. Dobako eskeintzea topetea oster, ez da hain erreza izaten. Ezta familia osoari zuzendutako ekimenik topetea be.

Parkean Jolasean Igorreko ludekearen udako proiektua da, bagilaren 26tik garagarilaren 28ra arte Lasarte Parkea, kolorez, musikaz eta libertimentuz jantziko dauana. Ume zein helduai

zuzendua dago, familian jolatu eta gozatu gura dogu eta!

Aurten Zaztaparrak Asti Taldeak ekimen hau indartzeko asmotan, proposamen desbardinak egingo ditu eguenetan, 20:00etatik aurrera: musika, ikus-entzuzkoak...

Hurbildu, jolatu, libertidu, konpartidu... berreskuratu daiguzan kaleak!

**Zaztaparrak Asti Taldea**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Garagarilaren 3tik 9ra**

Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 10etik 16ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 17tik 23ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 24tik 30era**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren**

902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Rakek Aldekoa Diez.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 7.000 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### Ikastaroak

Bere kabuz antolatuta (autoantolatuta, alegia) dagoan herriak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna dauka, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena eta hori egiteko formakuntza ezinbestekoa da. Horregaitik, Arratiako herri mobimentuetako jentea animetako ikastaro interesgarri biren barri emon gura deusuet. Alde, batetik, Joxemi Zumalabe Fundazioaren Bor Bor (K) Herri Jakintzen Laborategiaren barruko Pil-Pilean 2017/2018 ikastaroa eta bestetik, Sahara gurea! Proiektu komunikatiboa Arabako SEADen lagun alkarrearen eskutik.

Pil-Pilean ikastaroak herri mobimentuen saretzea, alkar ezagutzea eta esperientzien trukea bultzatzeko alkar-gunea izatea gura dau. Mobimentuen eragiteko zein jakintzak sortutako gaitasuna hobetutea ipar izanik, herri jakintza teoriko zein praktikoak iturri izango dituan formazio eredu askatzaile baten bidean pausak emoteko ahalmena alegia. Hori dala eta, atal nagusi bi ditu: lehenengoa, Antolaketa, funtzionamentua eta aliantzak; eta bigarrena, Zapalkuntzen egungo mekanismoak eta alternatiba askatzaileak. Guztira bederatzir hilabete irauten ditu, urri lehenengotik maiatzera arte, eta une presentzial zein ez-presentzialez osotuta dago. Informazio gehiago eskuragai dago: [joxemizumalabe.eus](http://joxemizumalabe.eus) domeinuan.

Bigarren ikastaroa Sahara gurea! Proiektua da. Asmoa da Mendebal-

deko Saharak bizi dauan espolioa salatzeke komunikazio kanpaina eraldatzaile bat martxan ipintea eta horretarako konbidatzen deuskue formazioa, aktibismoa eta komunikazioa buztartzen dauan eta laster hasiko dan esperientzia parebako honetara gehitzera. Informazio gehiago: [www.saharagurea.org-en](http://www.saharagurea.org-en).

Alkar ikusiko dogu?

PILI ÁLVAREZ MOLÉS

### Igorreko jaiak

Ez noa idazten triptikoagaz batera banandu dan glosarioaren gainean (euskerea ulertuten ez daben igorretarrak egitaraua ulertuteko ateratakoa). Sortu dan polemika artifiziala da eta asmoak ustelak (sinistuko neukez urteetan Eusko Jauriaritzatik institutuko ikasleai berbaldiak emotera erdaldunak bialtzen dabezan be, idatziak aterako baleukiez).

Justu kontrakoari buruz idatzi gura dot: zintzotasunari buruz.

Badago triptikoan gutun zintzo bat Jai Batzordeak idatzitakoa; non dinoan antolakuntza lanetarako "lau lagun" baino gehiago ez dirala batu. Hau irakurri eta pentsatu neban: hau da apaltasuna eta zintzotasuna azaldu dabena gazte honeek. Zelango lezioa!

Zorionak errealidadea ez makilatzegaitik eta zuon aahuldadea idatziz agertzeke lotsarik euki ez dozuelako. Horrek egiten zaitue handi!

GALDER OLIBARES YURREBASO

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [Zertu Kultur Elkarte](mailto:Zertu Kultur Elkarte). Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Asmau



Gauza barria, lehenagotik egon edo ezagun izan ez dana, sortzea da asmau egitea (ásmau, agoskatuta). Batuan, asmatu da. Beste esangura honeek be baditu asmau berbeak: 1) Jakinean egon ez dan zeozer aurretik igarri eta esan; eta 2) Usainen bat sentidu, soinuren bat barruntau... esate baterako: "Txirrin-hotsa asmau dot"; "Zure faltea sano asmetan da etxean"; eta "Bakunea ifini, eta asmau be ez eban egin!".

## ERETXIA

### Banku etikoak alternatiba gisa gaur egun

2013 urtean ezetu nebazan banku etikoko proiektuak. Proiektu honeek "gizartea eraldatzeko" tresna moduan aurkezten ziran, ekonomia solidarioaren norabidean. Halako baieztapen ideologikoagaz, iturri desbardineta informazioa aztertzen hasi nintzan, ha egia izateko guran. Bilbo uriburuko banku bulegoetara jo neban, Gobernu Kanpoko Erakundetako (GKE-ONG) webguneak bisitatu nebazan eta nire inguruko banku konsumitzailei galdetu neutsen.

Hasieran, edozein iturri baliok neban informazioa kontrastetako baina hiru zalantza garrantzitsu izan nebazan kontzeptu barri hau ondo ulertuteko.

Lehen: bankuak "etikoak" izan daitezke?

Badirudi kontraesan bat dala, ezta? Ba gaur egun, etiko moduan definitzen diran bankuak daukaguz Euskal Herrian, hori bai, ez daukagu oso argi ze banku mota diran eta zein helburu dituen. Hona hemen gustuko dotan banketxe etikoaren definizio bat: "banketxe etikoak, gizartearentzako balio erantsia daukien proiektuetan bakarrik inbertiduten dabe; onura soziala, onura kulturala eta ingurumena zaintzearen abiapuntutik". Horrezaz gainera, bezeroai euren aurrezkiak non inbertiduko dabezan jakin arazoten deuse.

Laburbilduz, finantza eredu honeen funtsezko helburuak gizartearen onura eta informazio gardentasuna dira. Dana dala, beste balore etiko batzuk be baditue; ekidada, konpromisoa eta eraginkortasuna.

Bigarrena: zergaitik behar doguz holango ereduak gizartea eraldatzeko?

Informazio eta gardentasun gixti dagoan gizartean hezi gara eta askotan gabezia hori salatu beharrean, normaltzat hartzean dogu, horren konponbidea bilatu barik.

### ITXASO FERNANDEZ ZUAZO

Gizarte Mobimentuetako Administrazio Teknikaria

Dirua kapitalismoaren tresnahelburu garrantzitsuenetariko bat da, eta aldatu ahal izateko, jakin beharko geunke banketxeak zer egiten daben gure diruagaz, ezta? Ba "banku tradizioaletan" hori ez da gertatzen. Banketxeak zergaitik ez deuskue esaten gure diruagaz egiten dituen inbersinoak? Agian inbersino horreek etika eta giza eskubideen kontrakoak diralako? Banku etikoak informazio gardentasuna eta gizartearen onurarako proiektuak daukie oinarri.

Lehenengo bi zalantzak argitu ostean, hirugarrenean sartu baino lehen, barri on bat emongo deusuet, gaur egun "banku konsumitzaile etikoak" izan gaitekezala konturatu nintzan eta horrerri esker, gizartea eraldatu. Lagunok, gure esku dago banku konsumitzaile moduan arduratsuek izatea.

Hirugarrena: zelan egin gaitezke "banku konsumitzaile etikoak"?

Bilbon aukera bi daukaguz banku etikoko bulegoa daukienak. Fiare Banca Etica, Santa Maria kalean eta Triodos Bank, Alameda Rekalde kalean. Baina lasai, Arratiakook ez gara bertaraino joan behar, webguneen bitartez bezero zein bazkide egin gaitezke eta. Hori bai, Fiare zein Triodosko bulegoetara jo ezker, aurrezkiak zein proiektutan inbertiduten dabezan jakinarazoko deusue, honeek gizartearen onurarako izanik, noski.

Animau! eta nik egin neban moduan, banku etikoaren gainean galdetu, ikertu eta bezero bihurtu. Ni behintzat konbenzidu egin nabe, kapitalismoaren aurkako banku alternatiba errealak dira-eta!

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatutako Batzuen proiektua

MONDRAGON

## LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

## Femi zer?

**O**rain dala hiru aste inguru Lemoako horma bat feminazi hitzaz eta esbastikez josia agertu zan; Andra eta Gizonen Bardintasunerako Planaren harira egingdako hormairudia. Hori ikusi eta pensau neban: ze letxes? Baina egia esan, ez nau harritzen. Izan be, berba hori gero eta ohikoagoa bilakatzen dabil laneko kafe tertulietan, interneteko komentarioetan, txokotako afarrietan. Batzuen artean, egoera batzuen aurrean, baina beti intimidadean. Zeren eta noski, guztion aurrean ez dogu onartuko ez gagozanik bardintasunaren alde, ezta geure buruari be. Ez da ondo geratzen: ez da progrea.

Baina errealidadea da matxismoa inoz baino indartsuagoa da. Gure pentsakeretan eta gure egunerokoa. Aldaketak lortzean gabizan sasoi honetan, androk matxismoari eta bere hamaika arpegitako logikeari aurre egiten deusagun bako-

txean, feminaziak gara. Jaietan tipo batek etenbarik molestetan gaituanean eta tuntunarena egin beharrean aurre egiten deusagunearan, feminaziak gara. Lanaren banaketan (soldatapekoak zein etxeokak) dagozan desorekak salatzen doguzanean, feminaziak gara. Zergaitik? Batzuen pribilegioak eta konfort eremua ezbaian ipinten doguzalako. Bestelako jentarte eredu bat bultzatu gura dogulako: danon eskubideak bermatzen dituana, bestelako balore batzuek.

Dana dala, ez da barria. Gertatu izan da beste herrialde batzuetan, beste sasoi batzuetan: zapalduak zapaltzailearen logikeari aurre egiten deusanean podereak bere tresna ideologiko guztiak jartzen ditu abian, burrukeari zilegitasun guztia kentzeako. Feminazi lango berbak matxismoak gure pentsakerak kolonizetako eta nahasteko erabiltzen dituan berbak dira.

Eta horregaitik inoz baino ozenago aldarrikatuko dogu feministak garala eta harro gagozala. Horregaitik, Lemoako andra eta gizonak, eta neska eta mutilak, hormairudia bermargoztu eben.

## ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

1

Eskualdean euskararentzat arnagunea ei gara lehenago Dimak ta Areatzak egin daurien gisara bazan ordua eta Igorre sartu jaku UEMARA euskararen alde pausoak eiten jarraitzeko ordua da.

2

Herriko jaiak gure artean hasiera emon dabe txosna, kontzertu, eta abarrak ditugu alderik alde juerga giroan lasai ibili, jardun suabe-suabe aholku hau da guztiontzako: ondo pasau, pasau gabe!

3

Gasteizen dogu Errekaleor beste askoren eredu Urtaran jaunak bota gura dau ez ei dalako seguru Iberdrolagaz batuz auzotik argi indarra dau kendu arratiarron mezua hau da: "Guk ere argi daukagu".

4

Gerra Zibilak itxi ebazan hemen hainbeste hilketa alkarte batzuk azkenaldian jarriaz hainbat arreta gobernuak be lagundu barik ezin emon honi buelta bide bazterrak oraindik ere dekoguz hilez beteta.

5

Venezuelan Chavistek ere orain hainbeste problema guztiz piztuta dabe alarma golpe militarrena nahiz ta ez esan errua dala oposizioarena zergatik hemen medioek ez deuskue esaten dena.

6

Eguraldian eukiko dogu udan bero nabarmena hori dala ta ohar pare hau botatzeko dot baimena: eguzkipean ura edanez hidratatzea onena eta ez aitzu sarri emoten eguzkitarako krema.

## BEGI TXINDORRA

**U**rtero lez, zuen bajeetan ateratako argazkiak, irakurle guztiakaz konpartiduten konbidatzen zaitue BEGITUk. Oporretan bizi izan dozuezan momenturik berezienak eta lekurik ederrenak konpartidutera hain zuzen, gure Argazki Lehiaketan parte hartuz. Eta irabazleentzat saria egongo da.

## Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1-. Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
- 2-. Gaia: argazkiak 2017 urtean egindako bajeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3-. Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4-. Nora bialdu: Argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira.
- 5-. Aurkezteko epea: 2017ko garagarilaren 3tik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztu eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek dirala irabazleak.
- 6-. Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7-. Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean argitaratuko da aldizkari honetan.
- 8-. Saria: Persona birentzako astegoiaren bat Euskal Herriko landetxe baten.
- 9-. Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisc.com](mailto:gorosti@gorostisc.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbait 100  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Paloq, Mendaketa, n.º 3, 48550 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000 480 839 000 000 707

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## LEMOA

# Su ta Gar taldeak Lemoako jaietan joko dau

Su ta Gar talde mitikoa Lemoako jaietan jotzekoa zan igaz, baina atzenengo momentuan, taldekide baten osasun arazoak zirala eta ez ziran etorri. Lemoako publikoagaz egindako zor ha kentzera datoz aurten. Eibarkoak, garagarriaren 29an joko dabe Elizondon.



Argazkia: Ilunefoto.

### Erredakzinoa

Ekilore Keramika Elkartek 25 urte beteten ditu aurten eta eurak botako dabe txupina garagarriaren 28an, baina ordurako jai hasita egongo da, aurreko egunerako Jai Batzordeak Kirol Eguna antolatu dau eta. Jaietako ikur dan baltsen jeitsierea zapatuan izango da arrastiko zazpiretan. Balsa guztiak batera urtengo dira Tallerretako zubitik eta amaieran abordajea egingo deusie alkarrerri. Azken egunean, oilasko pintxo solidarioak salduko dira eta batutako dirua Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformarentzat izango da.

Artisautza Azokak bere hogeigarren edizinoa izango dau aurten, eta San Inazio egunean, hilak 31, izango da.

### Txosnaguneko ekintzak

Karabie Gaztetxeok, Kalera ekimenak eta Lemoako Harrobi Futbol Klubak feria "txosneroa" eta kontzertu bi antolatu ditue. Lehenengo kontzertua Gaztetxean izango da: garagarriaren 29an, 22:00etan,

Astokolotro & "The Txilibistro's" Band taldearen eskutik. Bigarrena barriz, hilaren 31n, txosnagunean, 18:30ean, Greta ta krocketak eta Azkaiter Pelox Trio taldeak egongo dira. Arrasti osoan zehar, mojitoak eta patatak dastatu ahal izango dira.

### Garagarriak 27, eguna Kirol Eguna

16:30ean, 15 urtetik beherakoen Futbito Txapelketaren finala kiroldegian.

17:00etan, Ping-Pong Txapelketea eskolako patioan.

17:30ean, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketaren finala kiroldegian.

18:30ean, Eskupelota Txapelketaren finala kiroldegian.

19:00etan, Padel eta Frontenis Txapelketen finalak kiroldegian.

19:00etan, Mozorro Lehiaketan (garagarriak 28) eta Rally Umoristikoa (garagarriak 30) parte hartzeako izen emotea kiroldegian 20:00ak arte.

Partiduak amaitutakoan kopautxo egongo da parte hartzaileentzat eskolan.

### Garagarriak 28, barikua Mozorro Eguna. Gaia: Musikea

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

19:00etan, txupinazoa eta Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketea udaletxeko plazan.

21:00etan, kuadrillen afaria kiroldegian.

22:00etan, disko animazioa kiroldegian.

23:00etan, Los demenciales chicos acelerados (Eskorbuto-ren tributoa) taldearen kontzertua eta erromeria Tximeleta taldeagaz. Elizondon

### Garagarriak 29, zapatua Gastronomia Eguna

11:00etan, puzgarri parkea eta jokoak eskoletan.

13:30ean, bits jaiak.

13:30ean, Paella, Tortilla, Gisadu eta Bakailao Lehiaketetako lapiko aurkezpena eskoletan. Ondoren herri bazkaria.

17:00etan, Zatzaparrak eta Belgikara doazen gazteak alkarlanean antolatutako tailerrak eta jolasak eskoletan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketa kiroldegian.

19:00etan, baltsen jeitsierea Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretako zubian.

20:00etan, jantzaldia Lotxo taldeagaz Arlonagusia plazan.

20:30ean, Tango, Bals eta Pasodoble Lehiaketa Arlonagusia plazan. Izen emotea 20:00etatik 20:30era plazan bertan.

20:30ean, Arrantza eta Ehiza Elkartek sardinak emongo ditu Arlonagusia plazan.

22:00etan, kontzertua, Astokolotro & "The Txilibistro's" Band Karabie Gaztetxean.

23:00etan, Su ta Gar-en kontzertua eta Oxabi taldeagaz erromeria Elizondon.

Goizaldean, kopaua Elizondon.

24:00etatik 03:00etara, testing



zerbitzua egongo da.

02:30ean eta 05:00etan, Arratiako herrietara bueltetako autobus zerbitzua. Correos-etik.

### Garagarriak 30, domekea Play Back Eguna

13:00etan, Lemoako Txirrindulari Elkarteen eskutik, zinta lasterketea Elizondon.

18:00etan, Kuadrillen arteko Rally Umoristikoa. Mailuki tabernatik hasita.

22:00etan, ume eta nagusien Play-back Lehiaketea Elizondon.

23:30ean, Tremenda Jauria eta Bad Sound System taldeen kontzertuak Elizondon.

### Garagarriak 31, astelehena Euskal Jai San Inazio plazan

Baserritar jantzita dagozanai, plazan taloa eskuratzeko txartela emongo jakie. Txartelak 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bananduko dira.

11:30ean, XX. Artisautza Azoka Atxeta taberna ondoko plazan.

12:00etan, mezea San Inazio baselizan.

Meza ostean, Durundibari Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

17:30ean, Xaiborren ikuskizun barria Dantzatlon san Inazio plazan.

18:00etan, Igel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30ean, Igel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

18:30ean, Txosnak antolatutako terraza eta kontzertuak txosnagunean. Greta ta krocketak, eta Azkaiter Pelox Trio taldeen kontzertuak. Mojitoak eta patatak dastatzeko aukerea arrasti osoan zehar.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30ean, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

20:00etan, Eusko Labeldun oilasko pintxo dastaketea Elizondon. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasotako diru guztia Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformarentzat izango da.

22:30ean, Garsu erre Elizondon.



 **Jai batzordeak eta Lemoako Udalak**

*Gora San Inazioak!*

**JAI ZORIONTSUAK  
OPA DEUTSUEZ**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



**www.begitu.org**

**Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com**

## ARTEA

## Arteak sarrerako asfaltoa barriztatu dau

## Erredakzioa

Egoera txarrean egozan bideai lehentasuna emonez, Arteako Udala hasi zan igaz asfaltoa barriztatzan. Espartako zatia izan

zan lehenengoa. Herriko sarrerea bagilaren 20an amaitu eben asfaltetan. Hurrengoak, Sarasolako sarrerea, Garantzeko zatitxo bat eta Elexabeitiko beste bat izango dira.



Arteako sarrerea.

## ARRATIA

## Arratia Institutuko DBH 1.Bko diseinu batek irabazi dau Kerik Gabeko Gelen Saria



Arratia Institutuko 1.Bko ikasleak.

## Erredakzioa

DBHko lehenengo zikloko ikasleek artean tabakismoa prebeniduteko, Kerik Gabeko Gela Eusko Jaurlaritzaren programea antolatutun dau Arratiako Udalen Mankokunitateak (AUM). Lehiake-

tan DBH 1. eta 2. mailako ikasleek hartzean dabe parte. Aurten, Arratia Institutuko DBH 1.B gelako diseinu batek irabazi dau Lehiaketea. Bagilaren 19an AUMek banandu ebazan sariak Institutuan. Irabazleak euren diseinua eukan motxila bana jaso eben saritzat.

## ARRATIA

## Udan hilean behin aterako da BEGITU

## Erredakzioa

BEGITUK, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, bertako beharginak oporrak hartu dagiezan. Hau da garagarrilean eta abuztuan, hile bakotxean, zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Holan izango da aurten be eta garagarrilean eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 2koa izango da.

Garagarrilean eta abuztuan barriz, Kultur Etxeko lanak dirala eta, BEGITU lekuz aldatuko da Arteako udaletxera. Hile bi honeetan gure telefono mobikorrek erabili gugaz hartu-emonetan ipinteko.

## ARRATIA

## Ermita inguruetan barauskarri eta jantza ugari garagarrilean

Arratiako ermita inguru eta auzune askotan ospatuko ditue jaiak hurrengo asteetan.

## Erredakzioa

Leku batzuetan, trikitixearen soinu eta barauskarriagaz ospatuko ditue jaiok, beste leku batzuetan hiru eguneko programak be prestatu dabez. Horreetan erromeriarik ez da faltauko. Oraingo hilean, santomasak, sankristobalak, santamañeak, sansegismundoak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuten dira.

Garagarriaren 3an, santomasak ospatuko dabez Areatzako Ospitalosten, mezea eta parrilladeagaz. Igorreko San Kristobalen be, patroiarren egunean, mezea eta barauskarria egongo dira, baina jaiak 3 egun lehenago hasiko dira.

Lemoako Tallerreta eta Lemoretako jaiak garagarriaren 15ean ospatuko ditue aurten. Santa Marina, San Segismundo eta madalenak be badaukaguz hilaren erdikaldean. Santa Marina edo santamañe eguna hilaren 18an da eta Artean eta Dimako Bargondian ospatuten da. San Segismundo Zeberioiko Upon ospatuten dabe. Madalenak garagarriaren 22an dira eta Dimako Lamindaon eta Ubiden ospatuko ditue.

Hilaren amaieran, Santiago eta saninazioak daukaguz. Santiago, hilak 25, Artean, Diman eta Zeanuriko Ipiñaburun ospatuko dabe. San Inazio egunean, Gorbeiaiko kurutzera igoteko ohitua dago

Bizkaian eta leku askotatik etorten dira mendizaleak. Hori dala eta kotxe kopurua muriztuteko autobus zerbitzua egongo da Areatzatik Pagomakurreraino.

San Kristobal (Igorre)  
Garagarriak 7, barikua

21:00etan, parrilladea eta ondoren erromeria Jokaldi taldeagaz.

## Garagarriak 8, zapatua

12:00etan, Paella Txapelketarako izen emotea.

14:30ean, paellen aurkezpena. Bertan jateko lekua egongo da.

18:30ean, Tortilla eta Makailao Txapelketarako izen emotea.

18:30ean, Ibon Magoa.

20:00etan, tortillen aurkezpena.

20:30ean, makailoaren aurkezpena. Bertan jateko lekua egongo da.

21:00etan, Arantzarte jantza taldearen emonaldia.

23:00etan, kontzertua Larregi taldeagaz. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

## Garagarriak 9, domekea

13:00etan, mezea.

13:30ean, aizkolariak: Mendieta, Done, Manex eta Xabier Garcia "Utxu". Ondoren Igel Txapelketea.

## Garagarriak 10, astelehena

12:00etan, mezea eta barauskarria.

## Tallerreta eta Lemoretako jaiak (Lemoa)

## Garagarriak 15, zapatua

12:00etan, txupina Atutxen eta kalejirea trikitilariakaz.

14:30ean, oilasko jana. Bazkalostean, umeentzako puzgariak, bingo musikatua, giza futbolina, tarta jokoa...

19:00etan, tortilla eta auzoko piperren aurkezpena.

20:00etan, kontzertua Txapito Guzman eta Ibarroko langostiniek taldeagaz.

21:30ean, oilasko erre eta jaien amaieria.

## Ipiñaburu (Zeanuri)

## Garagarriak 22, zapatua

14:00etan, Auzo Kantu Bazkaria. Ondoren Briska eta Mus Txapelketa.

19:30ean, txokolata.

## Garagarriak 25, martitzena

Santiago eguna. 11:30ean, mezea. Ondoren barauskarria, pintxo-potea (pintxoak Zeanuriko Ibarreta jatetxeak eskeiniko ditu) eta Bola jokoa, Zeani Kofradi Bola Txapelketarako puntuagarria.

## Garagarriak 26, eguaztana

12:00etan, arimen mezea. Ondoren barauskarria.



**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dugu Bizarra egin eta bizkunduten dugu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutejatexea@hotmail.com

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**begitu**  
arria ubide zehar

## AREATZA

# Areatzak oinezkoen guneak indartu gura ditu

Areatzako Udala, oinezkoen guneak indartuteko proposamen baten inguruan lan egiten dabil. Izan be, Gudarien plazan eta gune historikoan ibiltari "arriskutsu" ereisten deitso, dagoan trafikoagaitik. Plaze ordutegi jakin baten zarratutea, gune historikoan seinalizatuko lekuetan bakarrik aparkau ahal izatea eta merkatarientzako zamalanetarako plazak ipintea garrantzitsutzat jotzen dau Udalak.



Areatza goitik ikusita.

### Erredakzioa

Herri barruan, oinezkoen eta kotxeen zirkulazioa arautzeko modurik egokiena bilatzen dauden Udalaren proposamena bagilaren 27an aurkeztu eben jentaurran. Gero, erakusketa publiko bat egongo da proposamenaren urrats nagusiak azalduteko eta jentek bere eretxia emon ahal izango dau aretzapartehartzea@gmail.com helbide elektronikoan edo kalean ipiniko dituen buzoiak erabiliz.

Asier Garcia Areatzako alkatearen arabera, proposamenak hiru urrats nagusi daukatz. "Alde batetik, Areatzako alde historikoan bakarrik aparkau ahal izango da horretarako seinalizata dagozan guneetan. Gudarien Enparantza 14:00etatik 08:00orak arte zarratuta egongo da lanegunetan, eta komertzioetarako zamalanetarako leku bereziak egongo dira. 8-10 leku atera gura doguz".

### Aparkaleku arazorik ez

Alkatearen esanetan, planak aretaztarren bizi kalidadea hobetuko dau, sano diru gitxi gastata. Izan be, bakarrik azterketea ordaindu beharko dabe eta oztopo-zutoinak erosi. Oztopo-zutoin askorik be ez dabela beharko dino alkateak, leku konkretu batzuetan ipiniko ditue-eta. "Lokali-

zautau daukagu jentek non ixten dauan kotxea" dino.

Hata guzti be, Areatzan aparkaleku ez da arazo izango. Azkerretearen arabera, Areatzan, guztira, (hau da garajeak eta aparkaleku publiko zein pribaduak kontuan hartuta) 701 leku dagoz aparkaleku, eta 2016an 555 turismo egozan errolatuta. Gainera, erdigunetik oso hur dagoz: Gudarien plazatik 5 minutuko oinezko ibilbidea egiteko erradioan, 382 aparkaleku dagoz.

### Seinalizazioa

Areatzako seinalizazioa hobetuteko be beste plan bat jarri dau martxan Udalak. "Ikusi dogu seinalizazio faltea dagoala eta hori hobetuteko inbersioa egingo dogu. Parking-ak seinalizata egongo dira herri sarrera eta urtekeru guztietan. Gainera, aparkaleku bitan, Bolibarren eta Iturrimorroko aparkalekuan, informazio puntuak egongo dira. Holan Gorbeiatik datorren jentek jakingo dau gune historikoa daukagula eta zer ikusi daiteken. Informazio puntuak eta seinalizazio bertikala be ipiniko dogu". Hau herria zabaltzeko politikea izango litzatekela dino alkateak. Puntu turistikoak Ibai Milikua eta Jon Artetxeren sormen lanak dira.

## ARRATIA

# Arratiako OEE, errefujiaduak hartzeako plan bat egiten hasiko da

Arratiako OEE Plataformea, udalak, Arratiako Udalen Mankomunitatea (AUM), Gurutze Gorria eta Arratiako Caritas batzartu ziran bagilean eta bertan OEE Plataformek plan bat egiteko konpromisoa hartu eban.



Argazkia: Berna Gomez.

### Erredakzioa

Udaletan mozinoak sartu ziranetik zortzi hilabete beteta egozan eta mozinoetan hartutako konpromisoak berreskuratu, eta aurrera eroan behar zizala adostu eben batzarrean. Errefujiaduak hartzeako inplikata dagozan eragile guztiak batzean ziran lehenengo aldia izan zan.

Errefujiaduen egoera eta Europako politikak aurkezten ebazan mozino Arratiako udal guztietan onartu zan. Han hartutako konpromisoak bete ahal izateko, Plataformek, udalakaz eta Mankomunitadeagaz alkarlanean, harrera, laguntza eta gizarteratze programea egingo dau eta parte hartzean daben eragile guztien koordinazioaz arduratuko da.

Hurrengo batzarrean, herrira datoza errefujiaduen preminak beteteko udal bakotzak zer eskeini ahal dauan zehaztuko da. Holan, Arratia babes herria izateko lehenengo pausuak emon gura ditue eta errefujiaduak heltzean diranarako dana prest euki.

### Garagarrilan Melillara

Euskal Herriko Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformek "Mugak zabalduz" karabana antolatu dau Melillara garagarriaren 14tik 22ra, Europar Batasuneko eta Espainiako estaduaren migrazio politikak salatuteko helburuagaz. Melillan, igesi datoza milaka eta milaka personen eskubideak errespetetea eskatuko dabe eta egoera onartezinak salatuko ditue: Melillako hesi kontzertinatua eta "beroan" egindako legez kanpoko kanporaketak, esate

baterako. Frontex-en kontrol politikak eta Europar Batasunaren Espainiako gobernuak Europar asilo eta aterpe bila datoza uko egiten jakiera be salatuko dabe.

Karabanan parte hartzeako, izena <https://abriendofronteras.net> webgunean emon daiteke.

### Lemoan dokumentala

Garagarriaren 26an, 22:30ean Lemoako Elizondon *Refugiados, camino a ninguna parte* dokumentala emongo dabe. Aurretik, 21:30ean, jatekoa egongo da. Horretarako, norberak eroatea zeozer eskertuko dau antolakuntzak.



## IGORRE

# Jose Ramon Bustinza demokraziako Igorreko lehenengo alkatea zendu da

### Erredakzioa

Bagilaren 24an, Jose Ramon Bustinza Arriortua, 1979tik 1987ra Igorreko alkate izan zana zendu zan Bilbon, 82 urte ebazala.

Bustinza Francoren diktaduraren osteko Igorreko lehen alkatea izan zan legegintzaldi bitan. Ezetu ebenak herriaren alde lan asko egin ebala dino. Batz-eko fundatzaileetako bat be izan zan.

Horregaitik, Igorreko Udalak, agurtu eta herriaren alde egindako lanagaitik eskerrak emon deutzaz. Baita Arratiako EAJ-PNVk be: "urte askoz Igorre, Arratia eta PNVren alde lan egin eban" dino.

## AREATZA

# Umeak eurak eskatutako zibuak ipiniko ditu Areatzak

### Erredakzioa

Aurrekontu parte hartzaileak landuteko, aurren eskolan izan ziran udal ordezkariak umei entzuteko eta bagilaren 15ean eskolara bueltatu ziran barriro azalduteko euren ideak zelan barnerratu diran udal aurrekontuetan. Umeak aukeratutako zibuak ipiniko dabez parkean.

Parkeko zibuak aukeratzea ez zan izan umeen ekarpen bakarra. Txakurren kakak, garbitasuna eta oinezkoen segurtasuna izan ziran txikerrenen beste kezka batzuk, eta horren gaineko ekarpenak be egin ebazan.

## OPORRAK

# Udako oporrak: familiagaz astebete Balear irletan

Almudena Jordanek bidaia agentzian egiten dau behar. Hamabi urte daroaz arratiarrai biajeak antolatuten eta ondo ezetuten ditu biajeai lotutako euren gustu, joera edo-eta fobiak. Garagarrilean, batez be familia edo bikotekideagaz egiteko, astebeteko biajeak antolatuteko eskatzen deusie arratiarrak. Gazteak luzetxoagoak. Kuadrilla eta lagun taldeak beste urte sasoieta joaten dira. Aukeratutako lekua be, desbardina izaten da udako oporretan, zein urtean zehar.

Interneten boom-a pasauta, gero eta gazte gehiagok jotzen dabela beregana hegaldia kontratatuko dino Jordanek. Gehien saltzean dituan biajeak Balear irletara eta Europako uriburu eta herrietara izaten dira. Asian, barriz, Thailandia eta India dira desiratuenak. Jihadismoari lotutako atentadiak hasi ziranetik, Afrikarako biajerik ez daukala apenas saltzean dino.

## Erredakzinoa

### Zuregana jotzen dabenak, zein biaje tipo eskatzen dabe batez be?

Danerik dago, baina normalean "oporretakoa" deitzean doguna izaten da. Oporretakoa deitzean deusagu hontzartzan hotel on bat eskeintzen dauanari. Hau da, hotelean animazioa eta entreteniduteko zeozer, edo antolatutako zirkuitua eskeintzen dauanari.

Gehien eskatzen dana irlak dira. Atzenengo urte bi honeetan asko igon da helmuga turistiko hori. Kanariak eta, azkenaldi honetan, Balearrak be gora egin dabe.

Opor kulturalen helmuga barriz, Europa izaten da. Italia, batez be. Batzuek, zirkuitu bat egin gura izaten dabe, edo euren kontura ibili. Horreek eroaten dabe he-



Almudena Jordan.

galdia, hotela, eta batzuek igoal, kotxea. Baina gero eta gehiago jenteak gidaliburu bat hartu eta bere kabuz joaten da. Batez be Europatik ibilteko.

### Zenbat denporatoko biajeak izaten dira?

Udan batez be gazteak eta familiak etorten dira biajeren bat egiteko. Gazteak igoal denpora gehiagorako doaz, 10 egun, 15 egun... Helduak astebeterako joaten dira.

Gero urrietan jubiladiak ibiltzen dira. Imseroagaz edo kuadrillan. Eta zirkuitua hartzean dabe orokorrean. Udan lehen familiak bakarrik eukiten nebazan eta orain, gero eta gehiago gazteak hasi dira agentzietara jotzen.

Urtean zehar andra kuadrillak ibiltzen dira. Gizonak futbolaren arabera mobiduten dira gehiago. Athletic-ek jokatzen badau ba, ez dakit Dublinen, hara joaten dira gizonak. Lau bat kuadrilla andra daukadaz urtero-urtero etorten diranak biajeren bat egiteko, ia beti Europara. Igorreko kuadrilla bat, Areatzako bi eta Arteako beste bat.

Aste Santuan, Europara. Asko Praga, Viena eta Budapest-era joaten dira. Edo Parisera... beti Europatik. Aste Santua ez da izaten hondartzara joatekoa. Prezioa be kontuan hartzean da; irletara asko igon da prezioa. Hori dala-eta, jentea hasi da Europara joaten.

Gero be Aste Santua segun noz izaten dan, aldatu egiten da aukeratutako lekua. Martian jausten bada, esate baterako, jente

Opor kulturalen helmuga Europa izaten da. Italia, batez be

Arratia  
ubide eta zeberiko  
euskeria  
eta kulturearen alde

Hamabostero  
Degitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Ilxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

lizen-abizenak:  
helbidea:  
herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

Zertu Kultur Elkarteak  
Berrito Plaza 21. 20172 Artea

**begitu**



gehiago joaten da Europa aldera, apirilaren erditik edo igoa gehiago Balearretara, Mallorcara batez be, ze fetxa horreetan denporea-gaz ez dira arriskatzen hainbeste.

**Europatik kanpo nora jotan dabe arratiarrak?**

Asko, Asiara. Jenteari asko gustetan jako Asia. Pasa dan urtean hasi ziran Peru aldera edo joaten, baina "izarra" Asia da. Thailandia eta India, batez be. Thailandiara jente gehiago joaten da. Orain dala zazpi urte edo, Viet Nam ipini zan modan. Eta Japonia. Baina ez dakit zer pasau dan, bat-batean eskatzeari itxi deusie. Thailandia da izarra; orain dala 13 urte edo hasi zan eta urtero-urtero saltzean da. Horra jente gaztea joaten da batez be.

**Eta Afrikara?**

Ez hainbeste. Lanbide honetan hasi nintzanean, orain dala 12 urte bai, baina jihadismoari lotutako atentaduak hasi ziranetik... ezer be ez. Lehen jente asko joaten zan Egiptora, Tunez-era, Senegal-era... Prezioagaitik be bai, ze Tunezek beti euki dauz prezio onak, baina orain ezer be ez.

**Atlantikoa zeharkatzen dabena be egongo dira.**

Bai. Igaz Perura joan zan hainbat jente. Aurten ez hainbeste. Hara joaten diranak hegaldia eta lehenengo gauberako hotela hartzean dabe bakarrik. Gero han, euren kabuz mobiduten dira.

Estadu Batuetara neguan joatea gustetan jakie arratiarrak. Aurten abuztuan badoaz batzuk. New York-era Gabonetan joaten dira. Edo ezteietako biajean. Ezteietako biajean, New York eta maiar erribera dira gehien aukeratzen dituenak.

**Jenteak zer gurago dau garagarrila ala abuztua?**

Nik beti saltzean dot gehiago ga-

ragarrilean. Beti. Gero abuztuan ez dago inor kaleetan, baina nik gehien-gehien saltzean dodana garagarrila da. Abuztuan jentea gehiago mobiduten da peninsulatik. Garagarrila da jenteak gurago dauana biajetako.

**Hamabi urte honeetan gorabehera handiak egongo ziran lan honetan, ezta? Alde batetik, oportetan kanpora joatea ea obligazino soziala bihurtu da; bestetik, Internetek eta krisiak be eragina izango eben...**

Bai. Viajes Ecuadorregaz hasi nintzanean, lehenengo urtea oso ona izan zan, eta hurrengo urtean hasi zan krisia. Internet-en eragina be igartzen da. Baina jenteak gero eta arazo gehiago izaten dauz interneten eta agentzietara bueltau da. Nik igaz aldatu neban enpresea eta interneteko enpresakaz egiten dot behar. Lehen 10 maiorista inguru neukazan eta hortik ezin nintzan urten; eta orain 100.000 daukadaz.

Krisiak luze jo dau, sei edo zazpi urtetan sano mobimentu gitxi egon da eta orain dala urte bi zarratutekotan egon nintzan. Baina orain gero eta jente gehiago daukat eta gazteak be etorten dira.

**Aurten nobedaderik edo destino barririk badago?**

Aurten, Gasteizko aireportutik Sardiniara hegaldi zuzena ipini dabe. Eta bete egin da segiduan. Orain eskatzen badozu, ez dago lekurik. Sardinia oso polita da, Menorcaren antzekoa eta jenteari asko gustetan jako.

Beste nobedade bat da Madriletik Los Cayos-erako (Cuba) zuzeneko hegaldia. Orain arte beti euki dogu La Habana eta Varadero, baina aurten Los Cayos-era ipini dabe. Karibe tipikoa da, harea zuria, itsasoa turkesa... Arratiatik be badoaz batzuk.



Nik beti saltzean dot gehiago garagarrilean.

Beti. Gero abuztuan ez dago inor kaleetan, baina nik gehien-gehien saltzean dodana garagarrila da

Aurten, Gasteizko aireportutik Sardiniara hegaldi zuzena ipini dabe. Eta bete egin da segiduan

Igaz be arratiarrak hondartzak eta Europak uribuetara jo eben. Argazki Lehiaketara igaz bialdutako argazkiak.

**ALKIZABAL**  
ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**  
ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

## MENDIA

**Virginia Perez Espainiako Mendi Lasterketetako azpitzapeldun izan da**

Virginia Perez mendi lasterketariari itaundu ezkerorea nongoa dan, horri erantzutea ez dala erreza dino. Kirolaria Guadalajaran jaiotako orain dala 30 urte. Gasteizen be bizi izan da eta orain dala gitxi Lemoara aldatu da menditik hur bizitearren. Albaitarritza ikasi ostean, Kalidadearen gaineko masterra egin eta IMQko kalidade departamentuan egiten dau behar, Bilbon.

Baina Perez batez be mendi lasterketari moduan da ezaguna. Igaz Espainiako kilometro bertikaleko txapelduna izan zan, eta aurten kilometro bertikalean Espainiako hirugarrena izan da eta Mendi Lasterketetako Txapelketan bigarren egin dau.

## Erredakzioa

**Kilometro bertikalak eta mendi lasterketak egiten dozuz. Zeintzuk dira zure lorpen handienak?**

Igaz kilometro bertikaleko Espainiako Kopa irabazi neban eta aurten, bertikalean hirugarren egin dot, eta bagilaren 25ean, Zumaian (Gipuzkoa) jokotutako Espainiako Mendi Lasterketako Txapelketan, bigarren.

Kilometro bertikaleko lasterketak egiten dodaz; hau da, 1.000 metro desnibel positibodunak ahalik eta kilometro gitxienean. Esate baterako, Espainiako Txapelketan 2,7 km. izan ziran. Baina mendi lasterketa luzeak be egiten dodaz. Aurten Espainiako Txapelketea maratoia izan da, 42 km. Horregaitik danetik entrenau behar izaten dot: indarra azkar

egiteko galapan, zein iraupena lasterketa luzeak egiteko, maratoietarako, esate baterako.

**Zein taldetan zagoz?**

Mendi lasterketarako Sestao Alpinon nago, baina azkenean babesleak, markak eroaten zaitu lasterketetara. Ni Inov 8 zapatila markeagaz eta Craft erropa markeagaz nago. Atletismoan barriz, Santutxuko BMn.

Mendi lasterketea ez danek kirol olinpikoa, erakundeak ez dabe diruz askorik lagunduten. Ez dago bekarik, atletismoan ADO bekarik dagozan moduan. Eta horregaitik bizimodua aterateko behar egin behar izaten dogu.

**Atletismoan hasi zinan eta jarraituten dozu. Zergaitik eta noz hasi zinan mendi lasterketan parte hartzean?**

Orain dala hiru urte hasi nintzan. 15 urte nituanetik krosak egiten



Virginia Perez.

nebazan, baina gero, ikasketak dirala, beharra dala, atletismoa baztertu egin neban apur bat. Baina mutil-lagunak galapan egiten eban mendian eta beragaz joateko animau ninduan. Lehenengo lasterketea ondo joan zan eta gustau egin jatan. Lasterketa bakotxa desbardina da, ez da bardina hemen egitea galapan edo hiru bailara harago. Asfaltoan bardin antzera da; hemen edo han 10 kilometro antzekoak dira.

**Norberaren indarrak ondo neurtu beharko dira eta lasterketa bakotxera egokitu.**

Bai. Lasterketa baten aurretik dauak daukaguz: zenbat kilometro eta zenbateko desnibela daukan, baina ez da bardina mendi bat igo eta bajatu, edo Zumaia lasterketan legez, igon eta bajatu, barriz igon eta bajatu... hamaika bider.

Burua hotz mantentidu behar da. Larregi ez egin. Beti gorde behar izaten da indarra azkenengo momentuan eritmo aldaketa bat egiteko.

**Zelan entrenetan zara?**

Astean behin, gimnasia joaten naz indarra landuteko. Beste behin edo birritan, eritmo aldaketak landuten dodaz: mendian, lauan, aldapan... Eta beste egunetan lasaiago entrenetan dot aldaketok asimilau ahal izateko.

**Denporaldiaren erdian zagoz,****zeintzuk dira zure aurtengo helburuak? Eta epe luzera?**

Aurtengorako neukazan helburu biak bete dodaz. Espainiako Txapelketetan podiuma egitea zan helburua. Kilometro bertikaleko Munduko Kopa jokotuten nago orain, eta hor ahalik eta ondoen amaitu gura dot.

Epe luzera, kirol honetan jarraitu eta hobetutea gurako neuke. Eta bitartean, lasterketan, leku eta jente barria ezetu.

**Zeintzuk dira zure aurkari eta lagunak.**

Mendaroko Maite Maiora, igazko Munduko Mendi Lasterketetako txapelduna erreferente eta laguna da. Oso gustura egoten gara alkarregeaz. Beste aurkari asko be lagunak dira.

**Andra gitxik hartzean dabe parte mendi lasterketan.**

Andrak %10 izaten dira gitxi gorabehera. 300 partaide badira, 30 inguru izango dira andrak. Pena emoten deusta. Zumaian, Espainiako Txapelketan, neska asko egon ginan, beste neska batzuk batera joan nintzan bide osoan. Bere alde txarra be badauka, lehan joan behar dozulako denpora guztian, baina oso polita da ikustea gero eta neska gehiago animetan dirala. Maila edozein izanda be, andrak mendian galapan egitera animauko neukez.

## MARATOI TXIKIA

**Loli Herrero Maratoi Txikiako irabazlea andra beteranoetan**

## Erredakzioa

Bagilaren 4an, Loli Herrero bakarrik igon zan Arratiako Maratoi Txikiako andrazko beteranoen podiumera. Saillapenean bigarren agertzen zan, eta sari banaketan antolatzaileak lehenengoari eta hirugarrenari deitu arren ez ziran agertu. Saillapenetan Eukeni Bikarregi agertzen zan irabazle eta Ainhoa Iza zan hirugarrena. Baina Bikarregi gizonetako da eta akats batengaitik agertzen zan saillapen horretan. Beraz, Loli Herrero da irabazlea.

Hiru partaide baino ez ziran egon andrazko beteranoen kategorian eta saillapenetan hirugarren agertzen danak, podiumean egoteko egin behar dan denpora baino gehiago egin eba azaldu deutso BEGIRURI Imanol Agirre antolaketakoak.

FUTBOLA  
Urbietako lanak

## Erredakzioa

Bagilaren erdikaldean hasi ziran Urbietako futbol zelaiaren drainatze arazoak konponduteko lanak. Aste bitan lanak amaituta egotea aurreikusten bazan be, aste horreetako euriak eta hezetan asko baldintzatu dabez lanak eta baleiteke luzatutea. Dana dala, Beinat Anzola Igorreko alkatearen arabera, "futbol udalekuak kontuan hartuta daukiez eta adostuta daukagu zein dan lehentasuna".

Lanak ez balegoz amaituta hilaren 3rako, udalekuak ez litzatekez atzeratuko, programatutako beste ekintzen batez hasiko litzatekez eta.

Dirabizko Urri lasterketako

# Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

MENDI LASTERKETEAK

# Lemoatx Trail 2017 Aramotzetik pasauko da



Kartela.

**Erredakzioa**

Ganzabal Mendi Taldeak eta Lemoako Udalak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketeak eta mendi martxeak ibilbide barria izango dabe aurten eta Aramotz eta Belatxiketatik be pasauko dira. Ibilbide bi egongo dira, bata 24 km.koa eta bestea 12 km.koa. Hitzordua, zementiarren 19an da.

Herrian kirola sustatzeko eta Lemoatxeko inguruak ezetuten emoteko sortu zan igaz Lemoatx

Trail mendi lasterketea eta mendi martxea. Horregaitik partaideak Lemoatxera igongo dira, baina aurten, ibilbide "politagoa" egiteko, Aramotzetik be pasauko dira. Gainera, jente gehiagorengana heldu guran, ibilbide laburragoa egiteko aukerea be egongo da, 12 kilometrokoa, hain zuzen be.

Lehen edizinoan 259 kirolarik hartu eben parte: 121 lagun mar-txa eta 138 lasterketan.

Izen emotea zabalik dago hila-ren 1etik herrikrosa.eus webgu-nean.

DESAFIOA

# Alex Txikon eta Mikel Larrañaga, nahia eta ezina

**Erredakzioa**

Apustu gogorra eukien Alex Txikon lemoatarrak eta Mikel Larrañaga azpeitarrak Azpeitiko zezen plazan. Jente asko bildu zan bertara, 1.000 lagunetik gora, esan beharrik ez dago ikusmin handia sortu ebala desafioak eta aurreko desafioetan legez, arratiar asko hurreratu ziran Azpeitiraino, lemoatarra animetako.


Azkoran, harria altxatzen eta galapan egin behar eben. 12.000 euro jokoan, alde bakotzak 6.000 euro ipinita. Proba ezin amaituta Txikon ospitalera eroan eben eta Larrañagak, oinez eta geratuz, eta botaka lortu eban desafioa amaitzea. Saioa hasi aurretik Alberto Zerain eta Mariano Galvan mendizaleak gogoratzeko minutuko isilunea egin eben Txikonek holan eskatuta.

Era garratzean irabazi eban apus-tua Larrañagak. Garratza, Txikonek ospitalean amaitu ebalako, eta Larrañagak berak be komeriak izan zitualako neurketea amaitzeko. Irudi gogorak ikusi ziran zezen plazan. Lehenengo proba, 100 kiloko

zilindro zaharra 20 aldiz altxatzea, Larrañagak irabazi eban eta sano segundo gitxiko alde atera eutsan Txikoneri. Azkoran barriz, alde handitu egin zan. Azken lana zan korrika egitekoa, 7,5 kilometro, eta aurretik ekin eutsan Larrañagak, gerturatzen ebilenean emon eutsan gaitzak Txikoneri eta azpeitiarra izan zan azkenean, asko kostata, nagusi. Amaitzeko 40 buelta falta ziranean betekadea igari jakon Txikoneri, eta geratu egin zan ura edateko. Gero balantzaka hasi zan. 58 itzuli egin eta gero, itxi egin behar izan eban lana. Hasikeran aldagelan zaindu eben arren, ospitalera eroatea ebatzi eben. 15 bueltaren faltan Larrañaga be balantzaka hasi zan eta parau behar izan eban, atzen bueltak oinez egin ebazan momentu askotan bazterrari helduz, eta atzenean botaka be ibili zan. Amaitutakoan medikuek aldagelan hartu eben errekupeu arte.

Ordubete, 19 minutu eta 7 segun-do behar izan zituan lanak amaitzeko.

Biak dagoz euren etxeetan, des-kantsua hartzean eta indarrak erreku-peretan.




Azpeitiko zezen plaza.

Argazkia: Iurdana Akasuso.

BIZIKLETEA

# Manu Quintanillak Bizkaiko BTT txapela lortu dau



Manu Quintanilla podiumean.

**Erredakzioa**

Bagilaren 18an, jokatu zan Sodu-pen Euskadiko Oponerako puntuagarria zan lasterketa bat eta bertan Bizkaiko txapela jokatu zan. Maters 40 kategorian, Manu Quintanilla igorretarrak irabazi eban lasterke-tea eta Bizkaiko txapela.

Zirkuitua teknikoa eta gogorra zan eta horrek igorretarraren alde egin eban. "Aldapa handia eukan eta horixe izan zan nire estrategia, aldapan gora ditantzia ateratea nire aurkariai" azaldu deutso BEGURI Quintanillak. Holan bigarrenari 8 segundo atera eutsazan. Andoni Ji-menezek eta Gorka Peredak osotu eben podiuma.

**Iker Lekue hirugarren M30ean**  
Beste alde batetik, Dimako Fisik-Banco Mediolanum taldeko Iker Lekue arantzazutarrak hirugarren egin eban Bizkaiko Txapelketan, M30 kategorian.

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

**ADENOR Igorre**  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

**Olaetxe**

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY TABERNA**

- Egin zaitetz bazkide!
- 09:30etik zabalik
- Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**ugatxa taberna**

Ugarana kalea, 8  
48141 Dima  
T. 946 129 460

**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
etikagai biologikoak  
zeliakoentzat etikagaiak  
estetiziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

## BARNETEGIA

## Areatzatik urtengo da AEK-ren oinezko barnetegi ibiltaria



AEK-ko barnetegi ibiltari bateko partaideak.

## Erredakzioa

Udan euskera ikasteko aukerak ugaritu egiten dira, eta AEK-k garagariletik urri lehenengora birtartean barnetegi ibiltariak jarten ditu abian. Oinez zein bizikletaz egiten dira barnetegi honek. Oinezkoa garagarilaren 15etik 29ra izango da; bizikletakoa barriz, hilaren 29tik abuztuaren 15era. Trasteak eroateko laguntza-furgonetea egongo da. Izena barnetegi hasi baino 11 egun lehenago emon behar da.

Barnetegi ibiltarietan ez dago eskola ordurik, batez be, mintza-praktikara bideratuta dagozalako, baina arduradunak irakasleak dira eta beti egoten dira prest edozein zalantza argitzeko edota zuzentzeko. Parte hartzeako ez da eda de konkreturik behar, ezta aparteko prestaketa fisikorik be. "Egun guztia dago erritmo gozoan eta bakotxaren abiadurara egokituta

taldeak eguneroko helmugara heltzeako" dinoe AEK-tik.

## Oinez eta bizikletaz

Garagarilaren 15ean abiatuko dira Areatzatik partaideak Euskal Herria mendebaldetik ekialdera oinez zeharkatzeko. Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar eta bestelako mendiguneetatik igaro ondoren, hilaren 29an Nafarroako Hiru Erregeen Mahaiaren kaskora iritsiko dira partaideak, Euskal Herriko gailurrera, hain zuzen be.

Bizikletaz barriz, garagarilaren 29an abiatuko dira Debatik eta abuztuaren 15ean, 1.000 kilometro inguru egin ondoren, Etxarri Aranazen amaituko dabe ibilbidea. Euskal Herriko leku polit asko bisitatu dabez: Urdaibaiko Biosfera Erreserbea, Matxitxakoko lurmuturra, San Juan Gaztelugatekoa, Arabako lautadea, Zugarramurdi, eta Anboto, esate baterako.

## AUZOLANDEGIAK

## Gazteak Lemoatxeko lubakiak errekuperetan jarraituko dabe

## Erredakzioa

Igaz nazinoarteko gazteak egin eben beharrari jarraipena emoteko, eta Lemoatxeko trintxera gu-neko beste 80-90 metro berreskuratzeko helburuagaz, aurtengo udan be, Eusko Jaurilaritzaren auzolandegien artean dago Lemoatxekoa.

Urtero lez, txanda bi egongo dira. Bata, garagarilaren 17tik

31ra izango da, eta bestea, garagarilaren 31tik abuztuaren 14ra. Txanda bakotxean, Euskal Herri-tik, Europatik eta mundu zabale-tik etorritako 20 bat gaztek egiten dabe behar.

2013an, sartu zan Lemoako Udala programa honetan eta harrezkero urtero-urtero, 1937ko Lemoatxeko batailaren lekuan, Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikarien gidaritzapean, gazteak



ondarea eta memoria historikoa berreskuratzeko egiten dabe behar, trintxera sarea lehengoratu guran.

## MUSIKA JAIALDIA

## Sei taldek konfirmatu dabe Dimetalen joko dabela

## Erredakzioa

Uri lehenengoaren 16an izango da Dimetal Fest jaialdiaren hirugarren edizioa, eta daborduko zazpi taldek konfirmatu dabe euren partaidetza. Bilboko Evil Seed, Bartzelonako Drakum, Gasteizko The Faithless, Bermeoko OST, Valentziako Raven's Gate, Eibarko Su ta Gar eta Asturiasko Last Days of Eden dira konfirmatu daben taldeak.

Aurrekoetan legez, jaialdia autogestionauta, dobanekoa eta etekin asmo bakoa izango da eta horretarako jentearen partaidetza eta ahalegina behar dabela dinoe antolatzaileak. Hori dala eta, aurten lehenengoz jaialdiari lagunduteko txosna bat ipiniko dabe jaietan.

Dani Alvarez EITBko kazetariak Dimetalen joko daben taldeetako partaideak batera emondako ber-

baldiaz hasiko da jaialdia. Bitartean txikerrenentzako jolasak egongo dira. Herriko tabernetatik metal poteoa egongo da gero, eta Harriti giza proba taldeak erakustaldia egingo dau. Ondoren bazkaria frontoian (12 euro nagusiak, 8 euro umeak). Bazkalostean Harriti taldeak beste erakustaldi bat egingo dau, eta gero, "Herri-metal kirolak" egongo dira barre batzuk egiteko.

Kontzertuak jagokienean, sei taldek konfirmatu dabe eta besteren baten konfirmazioaren zain dagoz dimetaleroak. Heavy metal, Viking metal, Hard rock, Power metal eta Symphonic metalaren doinuak entzuteko aukerea egongo da.

Antolatzaileak autobusak ipiniko ditue Bilbo eta Gasteizetik eta Dimako Udalak akanpetako lekua ipiniko dau.

## ANTZERKIA

## Kale antzerkia Areatzan

## Erredakzioa

2017an zehar bost antzerki ikuskizun ikusi ahal izango dira Areatzako kaleetan. Igaz hasi ziran ikuskizunok ekarten eta kale antzerkian, Areatza "erreferente" izatea gura dau Asier Garcia alkateak.

Daborduko ikuskizun bi eskeini ditue. Lehenengoa, apirlean, Shakti Olaizolaren *Baldin bada* lanaren aurrestrenaildia izan zan. San Juan bezperan barriz, Zo-Zongó taldearen *Psycho-Clown* ikuskizuna. Garagarileko ikuskizun bik eta abuztukoak aurtengo kale antzerkiko jaialdiaren egitaraua osotuko dabe. Hilaren 7an, 20:15ean, Zirkozaurre taldeak *Vademekun* antzetzuko dau, eta 21ean, Pez Limbok, *Lana* 20:15ean. Amaitzeko, abuztuaren 26an, Deabru Beltzak taldekoak *Su a Feu* ikuskizuna ekarriko dabe Areatzako kaleetara.

**begitu**  
arutia ubide berria

**Kili~Kili**  
Amopaki Publizitatea  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

INMOBILIARIA  
Tfnoa: 94 631 80 04

Udarako BEGITUren kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
Fisioterapia Zentroa Igorre  
Elexalde 4  
Telefonia 94 631 55 08  
Andra Mari Klinika  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

## DISKOA

# Raust! taldearen lehenengo maketea salgai dago

### Erredakzioa

Igorreko Axular Herriko Tabernan ipini dau salgai Raust! taldeak bere lehenengo maketea. Taldeak sortu-tako lau kantu jasoten ditu: "Gorputzak astintzen", "Pizti armatuak", "No time" eta "Zenbat gehiago?", errefujiaduen aldekoa. Taldea Legutioko I. Maketa Lehiaketako finalera heldu zan.

Karmelo Usategi abeslaria Igorrekoa izan arren, taldea Bilboko da. Asier Salazarrek (bajua), Aitor de la Perak (gitarra), Iñigo Torresek (gitarra) eta Unai Luzuriagak (bateria) osotuten dabe. Hasieran baterioleak Iñigo Benito zan eta maketea egiteko prozesuan, Benitok taldea itxi eta Luzuriaga sartu zan. Hilabete

gitxitan kantuak ikasten eta mol-datzen lan itzela egin dauala dinoe Karmelo Usategi eta Iñigo Torresek. Estiloari jagokonean, Raust!-en musikeak, Black Sabbath, Soundgarden eta Alice in Chains taldeen eragina daukala dinoe.

### Kontzertuak

Orain arte, batez be gaztetxeetan jo dau Raust!-ek. "Guk Txarraskan, Basauriko gaztetxean ensaietan dogu. Txarraskan pare bat kontzertu jo dogu, Deustuko gazte lokalean, Legution, Maketa Lehiaketako finalen... Apurka-apurka kontzertuak zarratuten gabilz" dino Usategik.

Maketea interneteko Bandcamp plataforman dago eta doban entzun eta deskargau daiteke.



## FOLKLORE BIZIAN

# Uruguay eta Armeniako jantza taldeak Areatzan

### Erredakzioa

Folklore Bizian Jaialdiaren barruan, Armeniako Bardiner, Uruguayko

Canelones-Danza Independiente eta Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldeak Areatzako plazan izango dira garagarilaren



24an, 20:30ean. Igaz ekarri eben lehenengoz Areatzara jaialdia, Galdakaoko jantza taldearen eta Areatzako Udalaren ekimenez eta emoitza onak izan ziran. Izan be, jaialdia, jantza ikuskizuna baino gehiago, jantza taldeen artean kultura bideak egiteko modua be badala uste dau Udalak.

Andra Mari Eusko Dantzari Taldea 1955ean sortu zan eta 1970ko hamarkadan, Euskal Herriko musika eta jantza zaharren ikerketa, ikasketa eta berreskuratze lanari ekin eutsan.

### Armeniako Bardiner

Armenia ez da herrialde erreza. Mendebaldea eta ekialdea bananduten dauz eta burrukaldiak egoten dira sarri. Bertan, etniak eta kulturak batzean dira eta horri esker, maila handiko eza-gutzak ditu arte, literatura, merkataritza edo zientzian, eta ez dira atzean geratzen herri kulturearen adierazpen diran jantza eta kantuak. Bardier taldeak aparteko koreografia daukan ikuskizun berezia ekarriko dau Areatzara.

### Uruguayko Canelones-Danza Independiente

Canelones-Danza Independiente taldea, 25 jantzari, kantari eta musikari baino gehiagok osotuten dabe. Taldeak izen handia dauka Uruguayn, eta Brasilen, Argentinan, Paraguayn eta Europan egin ditu jantzialdiak. Uruguayko musikeak europar, afrikar eta amerikar jatorrizko doinuak nahastuten dauz eta Canelones-Danza Independentek horreek guztiak jasoten ditu bere ikuskizunetan.

## DUNBA

# Erasmus+: Zulaibarreko irakasleak eguzki energiaren erabilera munduan aztertzen

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko mekanikako departamentuko irakasle dan Arkaitz Bernaola Abasolo eta elektrizidade departamentuko Xiber Perez Arroita, München egon dira Erasmus+ irakasleentzako beka batez. Bertan, Ernst Schweizer AG enpresako kideak egon dira. Schweizer, modulu fotovoltaikoen instalaziorako eraikuntza sorta zabala eskeintzen dauan enpresa da. Bezeroak moduluak eraikin desbardinetan instalatuko behar daben modurik egokiena eta erakargarriena bilatzea da Schweizerren helburua, horretarako puntako teknologiak eta materialak erabiliz.

Han, enpresearen inguruko informazioa jasoteaz gainera, ikasketetan erabilgarriak izan

daitekezan materialak jasoteko adostasuna lortu dabe, lan mundua eta hezkuntzaren arteko lo-



tura indartuz. Gerora begira, ikasleak bertara bidaltzeko bidea be zabaldu dabe irakasle biak.

Schweizer enpreseagaz kontaktuak egiteaz gain, Zulaibarreko bikotea Intersolar Europe erakusketan egon da. Intersolar, mundu mailan eguzki energiaren inguruko ekitaldi garrantzitsuetariko da eta mundu mailan eguzki energiak daukan indarra ikusi ahal izan dabe. "Gurean eguzki energiak atzen urteetan ez dau apenas bultzadarik izan, baina Schweizer enpresan eta Intersolarren ezagutu eta aztertutakoa harrigarria da. Eguzkiaren inguruko teknologia eguneratuenak energia barritagarri honen bidea mundu mailan zabalik dagoala agerian ixten dabe, eta gurean be bultzatu beharreko energia izan beharko litzateke".

Ekitaldi honetan, eguzkiaren energiaren munduan sartuta da-

gozan enpresa eta erakundeak be hartu-emonetan ipinteko aukerea izan dabe. Ikasleak Europara eta mundura energia barritagarrien inguruko enpresetara lanean bidali ahal izateko bidea zabaltea lortu dabe, besteak beste CTU, UCEEB (Czech Technical University in Prague, University Centre For Energy Efficient Buildings) erakundeagaz eta T. Werk GmbH enpreseagaz adibidez.

Holango esperientziak oso garrantzitsuak eta aberasgarriak dirala ondorioztatu dabe Zulaibarreko irakasleak. Bertan hasitako hartu-emonak indartsuagoak eta emonkorak izan daitezala espero dabe.



## AGENDEA

GARAGARRILAK 3  
AREATZA

Santomasak. 12:00etan, mezea; 20:00etan, parrilladea Ospitalosten.

Hilaren 7ra arte Udak antolatutako udalekuak. 09:00etatik 14:00etara.

Garagarrilaren 14ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketeta. Kartelak udaltxean aurkeztu.

## ARTEA

Garagarrilaren 13ra arte, Jon Deuna jubiladu eta pensinodunen alkarteak hilaren 18rako antolatutako Burgosera ibaldian parte hartzeako izen emotea udaltxean. Prezioa 30 euro.

## BEDIA

Hilaren 14ra arte, Udak antolatutako Udaleku irekiak eta Txiki Txokoa.

## DIMA

09:30etik 13:30era, udalekuetarako herri hezitzaileen formakuntzea ludotekan.

## IGORRE

Hilaren 28ra arte, 18:00etatik 20:00etara, Udak eta Zaztarrak-ek antolatuta, "Parkean jolasean" Lasarte parkean. (Urteak ez dira hezitzaileen ardurapean egongo).

Hilaren 7ra arte futbol udalekuak.

## LEMOA

08:00etatik 14:00etara, hilaren 14ra arte, jaietako kuadrillen afarirako eta herri bazkarirako txartelak udaltxean eskuragarri.

Hilaren 8ra arte Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekera. "La senda de Camille".

GARAGARRILAK 4  
ZEBERIO

12:00etatik 13:30era, Gure Indarra jubiladuen alkarteak antolatutako sanferminetarako txangoan parte hartzeako izen emotea udaltxean.

GARAGARRILAK 7  
AREATZA

20:15ean, kale antzerkia. Zirkozaurren *Vademekun* antzezlan.

## DIMA

22:30ean, Javier Mañonen umorezko bakarriketeta Ugabta tabernan.

## IGORRE

San Kristobalگو jaiak. 21:00etan, parrilladea eta ondoren erromeria Jokaldi taldeagaz.

GARAGARRILAK 8  
AREATZA

20:00etan, Sesions Galegas The Quiet Corner-en.

## BEDIA

Jubiladu eta pensinodunen urtekera Viana-Azagra (Nafarroa).

## IGORRE

San Kristobalگو jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

GARAGARRILAK 9  
IGORRE

San Kristobalگو jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

GARAGARRILAK 10  
DIMA

Hilaren 21era arte, udaleku irekiak.

## IGORRE

San Kristobalگو jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.



## Zeanuriko Jaietako Kartel Lehiaketeta

Garagarrilaren 10era arte aurkeztu daitezke Zeanuriko udaltxeko erregistroan Jaietako Kartel Lehiaketarako proiektuak, papelean zein euskarri informatikoan. Proiektu guztietan, derrigorrez testu hau agertu behar da: Zeanuriko jaiak 2017, abuztuaren 12tik 16ra.

Lehiaketan parte hartzeako Zeanuriko izen behar da eta sail bi egongo dira, 14 urte artekoa eta 14 urtetik gorakoa. Umeen proiektu irabazleak tablet bat izango dau saritzat eta nagusienak 200 euro. Proiektu irabazlea jaietako kartelean eta jai-egitarauaren azalean agertuko da eta lan irabazlearen egile-eskubideak Udalaren esku geratuko dira.

Lehiaketan parte hartutako kartel guztiak ikusgai egongo dira jaietan.

Hilaren 12ra arte, ekintza desbardinak LH 6, DBH 1. eta 2. mailako gazteentzat. Ez da izenik emon behar. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

Hilaren 14ra arte futbol udalekuak.

GARAGARRILAK 11  
ZEBERIO

Gure Indarra jubiladuen alkarteak antolatuta, txangoa sanferminetara. 09:00etan, Ermitabarrin; 09:05ean, plazan; 09:10ean, Arkulanda eta Santa Kruzen; 09:15ean, Ugaon.

GARAGARRILAK 12  
IGORRE

Jubiladuak txangoa sanferminetara.

GARAGARRILAK 13  
IGORRE

Hilaren 15era arte, Laidara urtekera LH 6, DBH 1. eta 2. mailako gazteakaz. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

## ZEANURI

Gorbeia jubiladuen alkarteak antolatuta, Lizarra-Viana txangoa.

GARAGARRILAK 15  
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta urtekera Gaztelugabera.

## AREATZA

20:00etan, The Boogie Riders, The Quiet Corner-en.

## IGORRE

09:25ean, jubiladuen urtekera. Igorre (autobusa)-Ubide-Saldrapo-Goiko Errota-

Altzusta (bazkaria)-Zeanuri (autobusa)-Igorre.

## LEMOA

Tallereta eta Lemoretako jaiak. 12:00etan, txupina Atutxen eta kalejira trikitilariakaz; 14:30ean, oilasko jana; bazkalostean, umeentzako puzgarriak, bingo musikatu, giza futbolina, tarta joko...; 19:00etan, tortilla eta auzoko piperren aurkezpena; 20:00etan, kontzertua Txapito Guzman eta Ibarroko langostinuek taldeagaz; 21:30ean, oilasko erre eta jaien amaierara.

GARAGARRILAK 16  
BEDIA

Hilaren 23ra arte, Bediako Uda Gaztea bijsa.

## ZEBERIO

San Segismundo. Upoko jaiak.

GARAGARRILAK 17  
BEDIA

10:30etik 13:30era, hilaren 28ra arte, ludotekea zabalik egongo da goizetan. Hilaren 24 eta 25ean izan ezik.

## IGORRE

Hilaren 20ra arte, Jakara urtekera DBH 3. eta 4. mailako gazteakaz. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

## LEMOA

Lemoatxeko trintxera gunea berreskuratzeko auzolandegia hilaren 31ra arte.

GARAGARRILAK 18  
ARTEA

09:00etan, udaltxean. Jon Deuna jubiladu eta pensinodunen alkarteak antolatutako urtekera Burgosera. Bisitaldi gidatua izango dabe bijsara doazenak.

GARAGARRILAK 21  
AREATZA

20:15ean, kale Antzerkia, Pez Limbo-ren *Lana* antzezlan.

## DIMA

21:00etan, Uckaia taldearen kontzertua. Ostein Trastorna2 taldea. Ugabta tabernan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 25era arte urtekera Pirinioetara. Granges d'Astau-Lezat (3.107 m.)/Portillon aterpea-Perdiguero (3.222 m.)/Portillon aterpea-Spijeoles (3.065 m.).

GARAGARRILAK 22  
AREATZA

20:00etan, Mota Blues, The Quiet Corner-en.

## ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 14:00etan, Auzo Kantu Bazkaria. Ondoren Briska eta Mus Txapelketak; 19:30ean, txokolatea.

GARAGARRILAK 24  
AREATZA

20:30ean, Folklore Bizian jaialdia. Armeniako Bardiner taldea, Uruguayko Canelones-Danza Independiente eta Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldea.

GARAGARRILAK 25  
DIMA

Hilaren 28ra arte, Gazteen Abentura Astea.

## IGORRE

Garagarrilaren 30era arte Txekiara bijsa 17 eta 20 urte bitarteko gazteakaz. Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

## ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 11:30ean, mezea. Ondoren barauskarria, pintxo-potea (pintxoak Zeanuriko Ibarreta jatetxeak eskeiniko ditu) eta bola joko, Zeani Kofradi Bola Txapelketarako puntuagarria.

GARAGARRILAK 26  
LEMOA

Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Udak antolatuta, errefujiaduen aldeko bideo emonaldia. 21:30ean, kopaua; 22:30ean, *Refugiados, camino hacia ninguna parte* dokumentala Elizondon.

## ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, arimen mezea. Ondoren barauskarria.

GARAGARRILAK 27  
LEMOA

Saninazio jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

GARAGARRILAK 29  
AREATZA

20:00etan, Behind taldea The Quiet Corner-en.

GARAGARRILAK 31  
LEMOA

XX. Artisautza Azoka.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## ALOKATZEN DA

100 m<sup>2</sup> dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

## DANERIK

## LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

## TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

## LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefona 688 647 074.

## ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

## GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1 **Suzien Mendi Klubak emondakoa erropa prenda bat.**

Abel Ortuzar (Areatza)

2 **Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.**

Aitor Erdozia (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Umeen berbetan, mosua. Ohore.  
2.- Opil mehe. Galdetzailea. 3.- Hots.  
Neodimioa. 4.- Bokala. Apaiz. 5.- Beste,  
lain. 6.- Natura. Bokala. 7.- Persona  
izenordaina. Entregau. 8.- Gaixo.  
Bizkaiko ibaia. 9.- Kinu. Osmioa.

### GOITIK BEHERA

1.- Ontzi. Eskapan. 2.- Ernaltzeko  
erabilten dan txarri ar. Arkume.  
3.- Elaia, hegabera. India. 4.-  
Bostehun erromatar. Antepara.  
Urania. 5.- Ezetza. Adore.  
6.- Erosteke lekua. Nafarroako  
mendebaleko udalerrria. 7.- Txarri.  
Saskil.



Topau eguraldiagaz eta sasoiagaz loturaren bat daukien zazpi izen.

A	Z	T	O	R	E	K	A	H	I
R	E	X	T	U	N	O	O	I	S
O	R	I	X	E	I	T	X	A	K
B	U	N	A	R	Z	O	I	D	E
E	M	G	I	A	A	Z	M	A	R
R	E	O	B	L	I	A	Z	R	R
K	L	R	U	K	A	Z	I	R	A
H	I	R	A	M	O	T	X	A	K
E	G	A	D	E	N	O	R	P	U
S	G	I	J	O	Z	Z	T	A	S
E	D	U	R	R	A	I	E	Z	K
J	O	T	Z	A	D	L	A	M	A
P	A	R	E	K	O	K	A	H	I
U	S	T	E	R	I	A	L	O	Z
R	O	G	E	Z	A	A	P	N	E

## Fobiofobia



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIODAK, NEUMATIKODAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GATV & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRATIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 64 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80  
e-porla. urrozul@euskalnet.net

## ISMAEL PEREIRA

"Nire helburua *El Conquistador* ikurriña altxatzea zan, anaiagaitik"

Ismael Pereira Zornotzan jaio zan. Antzerki ikasketak amaitu eta gero Bizkaiko Antzerki Ikastegian hasi zan irakasle lanetan. Zunba irakaslea be bada, eta Arratiako jai eta ospakizunetako disko-festetan, arratiarrai gorputza mobidu arazo eta arpegietan barre bat ipinten deutse. Lagun baten aholkuari jarraituz apuntau zan *El Conquistador del fin del mundo* programan eta 38 egun egin ebazan bertan.

Eskean Kristöko txapela soinean, barretxo bat beti arpegian, igorretarrak Karibeaz gainera, publikoa be konkistau dau. Telesaioak aldaketak ekarri ditu bere bizitzan. Arlo profesionalan, lan gehiago eta famaa ekarri deutzaz. Arlo personalari jagokonean, orain urte batzuk zendutako anaiagaitik *El Conquistador* ikurriña altxau gura eban Ismaelek. Hori lortu ez arren, anaiari hainbeste gustetan jakon programan parte hartzeak on egin deutzala familia osoari uste dau.

Rakel Aldekoa Diez

**Arratian aspalditik zinan ezaguna (Zugan ni, Zu bai Zu, zunba...) baina *El Conquistador* mugak gainditu dozuz eta orain Euskal Herri osoan zara ezaguna. Publikoaren faboritua be izan zara. Pozik ez? Saio honek aldaketak ekarri ditu zure bizitzan?**

Bai aldaketa handiak ekarri ditu. Apuntau nintzan eta barruan nagoa esan eustenean ikusi neban zer dan. Etxean amak eta anaiak asko ikusten eben programea. Nik inoz ez neban ikusten enbidia handia emoten deustelako holango konkursoak. Banekian zetaz doan programea baina gaintetik. Anaia hil zanetik *El Conquistador* ez zan ikusten etxean, eta bat-batean lagun batek deitu eustan esanez Bilbon *castinga* egoala eta apuntau egin nintzan. Nire helburua zan ikurriña neuk altxetea anaiaren omenez, baina ez neban lortu.

Jenteak esaten eustan "nora zoaz Ismael, indar nahikoa eukiko dozu probak egiteko?" Orain behin urtenda konturatu naz %90 burua dala, eta beste %10 fisikoa. Psikologikoki egurra emoten dabe etenbarik programan. Han bakarrik zagoz, nominetan zaituenean, autoestimua zelan daukazun oso garrantzitsua da; jenteak zelan egiten deutzun berba kamara aurrean edo atzean, eta abar. Horregaitik jente

askok ixten dau programea. Erresistentzia eukitea be oso garrantzitsua da, ezin dozulako dana emon lehenengo minutuan eta hortxe geratu. Konstantea izan behar zara. Probak ordubete edo ordu bi inguru irauten dabe. Nik neuk ez neban objektu personalik eroan nire ustez kalte egiten dabelako. Bueno bai, Eskean Kristöko txapela eroan neban.

**Saioaren ze balantze egiten dozu? Ze izan zan onena eta ze txarrena?**

Ikuspuntu personaletik, esperientzia moduan, oso ona izan da. Askoz gehiago baloretan dira gauzak bueltan. Han nengoala neure buruari zera esaten neutsan: "ez daukagu edateko urik, lurtean egiten dogu lo... baina hau amaitutakoan etxera joan eta horreek gauza guztiak izango doguz. Baina badago jentea beti holan bizi dana". Programan zoriotsuak ginan hamaka bategaz. Hona etorri eta konturatzen zara dana konsumoa dala eta horrek hasarritzen nau.

Txarrena, parte hartzaileak ez dituela asko zaintzen programan. Egurra emoten deuskue modu fisikoan zein psikologikoan, horrek emoten daualako jokia. Tratu txar legala dago. Ez daukie neuririk. Ipini arazo zeinkiez 8 metroko altura baten ames barik, ez jakie ardura zer pasetan jatzun... Gaubetan bakarrik egoten gara, ez dago segurtasunik.

**Jentea telesaio horretan parte hartzera animauko zeunke ala**

**lar gogorra da? Ze jente?**

Nik norbere buruaren publizitatea egin gura dauan jentea animauko neuke *Conquistador* parte hartzean. Hau da, musika taldeak, aktoreak, eta abar. Azken baten, eragin handia dauka saioak. Familia eta hurrekoai ez apuntetako esaten deutset matxake handia dalako.

**Dana dala, balantze ona egiten dozu.**

Anaia hil zanean Igorretik barre bategaz joaten nintzan eta horregaitik oso aurrerexi txarrak egon dira. Nik barrutik eroaten dodaz gauzak, ez jata gustetan jenteak esatea "zelan-go penea Ismaeleri anaia hil jako". Gainera, zalaparta handia egon zan momentu batetik aurrera ez nintzalako eleizara joaten nire anaiagaitik. Azkenean hori niretzat Cabarceno modukoa da. Bertara zoaz herriko kontakatuak zu bertan ikusteko. Nire anaiagaitik ikurriña altxau gura neban, berari asko gustau izan jakolako *Conquistador* ikustea. Berak hainbeste bider esan eustan: "Ismael egunen baten bertan ikusiko zaitut". Orokorrean, familiari oso ondo etorri jako nik bertan parte hartzea, nire alde guztiak ikusi ditualako. Batez be, alde sentibera. Neska-lagunari bakarrik erakusten deutzadan alde.

**Eskean Kristöko txapela gasta egin dozu, denpora guztian eroan dozu aldean. Imaginetan dogu beste txapel bat oparitu deutzala eta sarrerak doban eukiko dozuzala bizitza guztirako euren kontzertuetan, ezta?**

Eskean Kristöko txapela eroatea nire gauzea izan zan, eurak ez eben ezer jakin. Eskean Kristö Arratian daukagun talde bat da eta batzuetan uste dogu Arratiakoa dana Arratian geratu behar dala. Eta sano gauza onak daukaguz ez doguzanak baloretan. Nire ustez, posibilitate handiko taldea da eta horregaitik ebatzi neban txapela eroatea, jente gehiagori ezetuten emoteko. Euren abestiak kantetan egon nintzan baina ez eben emitidu. Nire ustez, danok lagundu behar deutzagu alkarrer. Eurak be niri lagundu deuste ze euren bideoklip bateko aktorea izan naz.

Alkarrerri lagundutea oso inportantea dala iruditzen jata.

**Zek emoten deutz bildur handiago, hango urakanak ala ointxe jatortzunak?**

Momentuan, hango urakanak emon eustan bildur handiagoko, baina egia da orain urakan handi bat jatortala. Zinera joakeran edo jatetxe batera... jenteak ez dauka filtririk. Egun baten, Bilbora joan nintzan kotxez eta auto-ilarak egoazan. Bat-batean batek leihoa jeisteko eskatu eustan eta ea ondoan ezarri eitekean galdetu eustan, nigaz berba egiteko. *El Conquistador* eragin handia dauka eta orain arte ez nekian hainbestekoa izango zanik. Gainera, publikoaren faboritua izanda, neurtu egin behar dozu eta barretxo bat bota beti.

**Zer moduz joan dira jaiak? Pregoia zeuk egin zenduan.**

Igorreko jaiak jagokienean, lehenengo asteburuan nahiko motel ikusi nebazan, ez zan egon jente askorik, nahiz eta kontzertu itzelak egon. Tremenda Jauria, esaterako. Bigarren asteburua, barriz, oso potentea izan zan eta azkenean edaria amaitu zan txosnetan. Aurten oso ondo egon dan beste gauza bat izan da kultura aldetik antzerki asko egon dala. Nire ikuspuntutik, aurten esfortzu eta lan handia egin dau Jai Batzordeak jaiak hobetuteko.

Pregoiari jagokonez, nire ustez, txarto ulertutako pregoia izan zan. Jaiak hasi aurretik arazo politiko bat egon zan, euskereagaz; hau da, jaietako programa osoa euskeraz ipintegaz. Orduan nire lehenengoko esaldia hauxe izan zan: "Arrastion Igorre eta Arratia edo zelan esan beharke neuke ondo ulertzeko? Buenas tardes Yurre y Valle de Arratia". Honegaz esan gura dot batzuetan ez dala beharrezkoa gauzak erderaz ipintea. Nok ez dau ulertzen jaietako programa bat euskeraz?

Beste alde batetik, esaten dabe dana euskeraz dala. Nahiz eta logikoa danez, gehiena euskeraz izan, gauza batzuk erderaz egon dira: antzerkiak, kontzertuak... Jenteak uste dau Jai Batzordea zeozer politikoa dala eta ez da holan: independien-

tea da, edonor joan daiteke bertara eta bere eretxia emon. Nik horreek kejak entzunda esaten dot zergaitik ez da jentea Jai Batzordera etorten eretxia emoten? Gainera, Jai Batzordean gero eta gitxiago gara.

Pregoian aitaturako beste gauza bat izan zan sexua euki behar dala, ligau behar dala, beti jakinda zelan, ez edozein modutan. Hau da, "ligoteo sanoa" aldarrikatu neban.

**Ikasturtea amaituta, zunba eta antzerki irakasle lanetan oporrak hartuko dozuz ezta? Ikasturtean Karibearen egonda, orain udan etxean egoteko gogoak daukazu? Zeintzuk dira zure planak?**

Hilabete bateko oporraldia daukat baina oporrak azkenean ez dira oporrak, orain *Conquistador* ateratuko disko-festa guztiak aprobetxau behar dodazalako. Pilo bat urten jataz. Zunba eta irakasle izatek jai hartuko dot baina disko-festakaz segiduko dot. Beraz, oporrak ez daukat. Dana dala, publikoaren faboritua izateagaitik lortutako diruagaz Karibera bueltauko naz. Bederatzi egun joateko asmoa daukat, Gabon Zaharretan telefono barik, Iraiagaz (neska-laguna), eta Maddi eta Izeta *Conquistador*ak batera.

**Eta hurrengo proiektuak? ETBn beste programa baten zabiz parte hartzean ezta?**

Bai beste programa baten nabil parte hartzean. Hemendik aurrera hainbat telebista programatan ikusiko nauzue. Eta ez bakarrik telebistan, irrastian be egongo naz. Asko gustau jakie nire perfila eta aprobetxau gura dabe. *Reality* biren barruan egongo naz eta beste baten ez naz hain barruan egongo.

*Conquistador* euskeraz berba egitean ebagiten euskuen. Han, dana hasi baino lehen, aireportuan esaterako, jentea ezetutean, hartu-emonak euskeraz izaten ziran; baina gero duelu baten, esaterako, gaztelaniaz egin behar genduan berba, eta arraroa zan. Arazoa da badagozala hainbat langile euskeraz ez dakienak eta orduan gaztelaniaz berba egitera behartzen ginduezan denpora guztian.

